

BBK-UNESCO NAZIOARTEKOTZE BEKAK

*2024ko irailerako aurreikusitako deialdia.
BBKren eta UN Etxearen web guneetan eta sare sozialetan iragarriko da*



AURKEZPENA

BBK Fundazioak eta UN Etxeak nazioartekotze bi prestakuntza-praktika eskaintzen dituzte urtero, UNESCOren Parisko egoitza nagusian.

2014tik, Bizkaiko 17 gaztek izan dute sei hilabeteko iraupena duten prestakuntza-praktika horiez gozatzeko aukera. Onuradun guztiek aukera izan dute gero UNESCOn karrera profesionala garatzeko.

NON

UNESCOren Parisko egoitzan.

IRAUPENA

Onuradunak 6 hilabeterako sartuko dira UNESCOn, otsailetik uztaileira.

DOTAZIO EKONOMIKOA:

10.000€ gordineko zuzkidura ekonomikoa; horri dagozkion zergak eta bidaiako laguntza-aseguruaren zenbatekoa kenduko zaizkio.

Ordainketak Kutxabankeko kontu zenbaki batean egingo dira, eta kontu horren titularra onuraduna izango da.

BALDINTZAK

1. Bizkaian erroldatuta egotea.
2. Unibertitate-titulazioa.
3. Ikasketa ofizial horiek deialdi honen aurreko 5 urteetan amaitu behar dira (7, desgaitasuna duten pertsonen kasuan).
4. Ingelesa edota frantsesa bikain menderatzea.
5. Lehentasuna izango dute BBK bekarik jaso ez dutenek.

ESKATUTAKO PROFILAK

Urtero desberdinak dira. UNESCOk deialdi bakoitzean ezartzen duenaren arabera, prestakuntza-praktikak erakundearen zerbitzu zentraletan zein 5 jarduera-sektoreetako batean (Hezkuntza, Gizarte Zientziak, Natur Zientziak, Kultura eta Komunikazioa eta Informazioa) egin ahal izango dira.

HAUTAPEN-PROZESUA

Irailaren erdialdetik urriaren hasierara bitartean, UNESCOk eskatutako profil akademikoak zehazten dituen deialdia egiten da, eta hautagaitzak aurkezteko epea irekitzen da. [BBK Bekak](#) webgunean, [UN Etxeko webgunean](#) eta bere sare sozialetan jakinarazten dira profilak eta CVaren bidaltzeko epea eta modua.

Jasotako CV guztiak berrikusi ondoren, aurrez aipatutako oinarritzko baldintzak betetzeaz gain, deialdi horretan UNESCOk eskatutakoei gehien egokitzen zaizkien profil akademikoak dituzten pertsonak sartuko dira hautaketa-prozesuan.

Hautaketa-prozesuak bi zati ditu:

- UN Etxean egindako elkarrizketa bat eta hizkuntza-proba bat.
- Horren ostean, UN Etxeak hainbat hautagai proposatuko dizkio UNESCOri. UNESCOk online elkarrizketa pertsonalak egingo dizkie guztiei, azkenean bi onuradunak hautatzeko.

UNESCOri eta Nazio Batuei buruzko prestakuntza-ikastaro bat egingo da hautatutako bi pertsonentzat. UNESCOn sartu aurretik, UN Etxeak emango du prestakuntza hori.

**Ez da inola ere sortuko kontratu-harremanik
onuradunaren eta UN Etxea edo UNESCOren artean.**

[Ohiko galdera gehiago ikusteko >>](#)

Informazio gehiago:

UN Etxea
Isozaki atea – Bizikidetasun enparantza
Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala
48001 Bilbo

Begoña Guzmán - 94 427 64 32
bbkunesco@unetxea.org

BBK Fundazioa – BBK bekak
Kale Nagusia 19-21, 1º
48001 Bilbo

94 685 94 00
becas@bbk.eus [BBK Bekak](#)